

Abarrak

Matematikaren izen-abizenak

El rostro humano de las matemáticas.
Iruñeko Planetarioan. Urriaren 31ra arte.

“Pertsona jantziak Mozart, Van Gogh, Dalí, Shakespeare, Cervantes edo Chaplin bezalako buruargi edo jakintsuen obra eta bizitza ezagutu behar dituela suposatzen da. Hala ere, ulergarri eta justifikagarria da beste jakintsu batzuei buruz ia ezer ez jakitea”.

Horrela aurkeztu du Espainiako Matematikaren Errege Elkarteak *El rostro humano de las matemáticas* (Matematikaren giza aurpegia) erakusketa. Agian, zientziaren adar horren abstrakzioak eragiten du pertsona jantziak matematikan biluz izatea; erakusketa honek oso eremu konkretura ekartzen du abstrakzio hori: 25 mendez matematika “osatuz” joan diren zientzialarietako batzuk aurkeztu dizkigute, batez ere egin zituzten aurkikuntzen berri emanez, baina haien bizitzaren bestelako pasarte batzuk ere gogoratuz.

Hogei izen guztira, bakan batzuk –Pitagoras, Newton, Descartes...– hasierako paragrafoen maila berekoak ospez, gehienak ezezagun samarrak. Baten batek daki, esaterako, probabilitateaz zeuzkan ezaupideei esker dadotan jokatetik bizi izan zen Geronimo Cardano nor izan zen? Inork ezagutzen al du Evariste Galois,



Matematika gorpuztu duten gizakien aurpegiak ikusgai
El rostro humano de las matemáticas erakusketan.

bere teoria gehienak espetxean garatu eta, hogei urte zituela duela hiltzeko bezperan, lagunei bidalitako gutunean jaso zituena? Eta nork aditu du behin ere Sofia Kovalevskayaren izena? Emakumeek ikastea galarazita zuten garai batean, mila trikimailu asmatu behar izan zituen debekatutako apunteak eskuratzeko, maite ez zuen gizonarekin ezkontzea barne.

Halako pertsonaiak aurkeztuko dizkigute, hilaren 31ra arte Iruñeko Planetarioan. Donostiako Zientziaren Kutxagunean hiru hilabete eman zituen erakusketak eta, mihiluzeez diotenez, oharkabean igaro zen. Ea oraingoan suerte handiagoa duen. Badakizue, arrakasta ez da zientzia zehatza.

UNAI BREA

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

INDEPENDENTZIA
ASTERO IKUSTEN DA

Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: _____ - _____ Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Talotzez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

Aukeratu ongietorri oparia



“Kirolaz badakit”
mahai-jolasa



“888 txiste”
liburua



“Txoriak txori”
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian

ARGIA